

## Anne-Christine TAYLOR

Gai bat aipatu nahi nuke, Gérard Lenclud-ren hitzaldian gutti agertzen dena : **ohidura eta nortasunaren arteko harremana, nortasun-esleipena.**

Gizarte guzietan badira momentuak, testuinguruak (gehienetan erritoei lotuak) non pertsona batzu ekarriak diren , beren kabuz edo komunitate -kide gisa, rola berezi batzuen betetzera, ordu arte zirenari uko eginez. Hau inimizazio-erritualetan gertatzen den egoera tipikoa da.

Identifikazio edo des-identifikazio erritual hauek oposizio bat adierazten dute, beste identifikazio forma batzuekin : « gizonak emazteen kontra, gizon-emazteak jenioen kontra, adin batekoak adinekoen kontra, gu... zuen kontra... ».

Nortasun-esleipen eskusibo hauek ez dira iraunkorrak : ondotik eta egunerokoan, beste identifikazio forma batzuekin elkarbizi dira.

Nortasun-esleipen hauek ez dute « zirena bilaka zaitez » aginduari erantzuten baizik eta « **hau izan zaitez eta ez hori** » aginduari. Eta gehienetan « hau izan zaitez » horretan, **zer izan** zehaztugabea eta enigmatikoa gelditzen da. « Zirena bilaka zaitez » agindua ideologia modernoaren nozio batzueri lotua da : norberaren berezitasuna, gizon-emaztearen izaera, jendartea... eta denek dakigu ez direla hauek unibertsalak.

Nortasun-esleipena hego-amerikar jendartean ez da gaur erabiltzen diren **etnia** edo **nazio** konzeptuei lotua.

**Ohidura bat ondare bilakatzen da** talde bat justifikatzera bortxatua sendi delarik-beste taldei eta bereziki menperatzen dutenei-**kultura** berezi bat baduela eta beraz historia eta nortasun indibidual-kolektibo berezi bat.

Prozesu honek suposatzen du norberak jakitea (kontzientzia ukaitea) **kultura** bat baduela, jendarte askok duela gutti arte ez zakitena. **Kultura** hau oposizioan ematen da **kostuma**- rekin (hego Amerikan *costumbre* deitua dena). Eta biziki interesgarria da ikustea Latinoamerikarrek kostuma hori « **el costumbre** » deitzen dutela eta ez « **la costumbre** » (gartzeleraz ohi den bezala), genero aldaketa bat egiten dute nahitara...Ozeaniako ingelesdun herrialdetan *custom* hitza erabiltzen dute.

*El costumbre* hitza kolonialismoak sortu ohiduraren ikusmolde bati lotua da. Ikusmolde honen arabera, ohidura hau da : maite dugun mundu baten transmititzeko eta iraunarazteko **egin edo izan behar duguna, kanpoari agertzeko eta zehazteko beharrik gabe.** *El costumbre* deitzen dena, zehaztugabea denez, kanpoko begiradatik babesten duen maska da.

Alderantziz **kulturak** eskatzen du ikusgai eta eskuragarri izatea, gardentasuna eta partekatzea baitira guretzat harremanaren norma. Kultura performantzien, ekoizpenen, monumentuen bidez denei erakutsia da eta normalizatua, ondarea saileko eragileek igurikatzen dutenaren arabera : Unesco

bezalako nazioarteko agentziak( kulturaren kriterio identitarioak eta ekonomikoki erakargarriak definitzen dituztenak), turismo-industria, estado instituzioak (minoritateen eskakizun politikoak ekitaldi folklorikoetan ongi bideratu nahi dituztenak).

Bixtandena ez da dena kultura sartzen, hala nola osasuna edo ordena publikoa zaintzeko programak oztopotzen dituzten praktikak, balore finkatuentzat subertsiboak direnak edo harridura sortzen dutenak. Ikertzen ditudan Jivaro indianoen buru-ihizia ez da sekulan ondare ekarria izanen, ez ta ere Mediterraneo aldeko vendetta. Tauromakiak ondare izaitea ukanik galduko du laster.

Bi hitzez, kulturak berezitasuna markatu behar du... bainan denek onartuko duten berezitasun "higienizatu" bat. Baldintza horretan, kultura ikertua, instituzionalizatua, ondare ekarria da eta balore bihurtua, balore ekonomiko bixtandena. Errenta (arranda) bat bilaka daiteke, gutiestekoa ez dena ezin biziz ari diren komunitate batzuentzat. Bestalde, norberaren nortasun etnikoa frogatzen du eta garantia hori ezinbestezkoa da LatinoAmerikan politika guneeetara iristeko.

Ondarekotze prozesua bikoitza da beraz : alde batetik ohidura bat zonbi, zur eta harri bilakaraz dezake, kasik hiltzeraino ; bestaldetik behar-beharrezko baldintza da eremu politikoaz eta baliabide ekonomikoetaz jabetzeko. Azkenean, ohiduraren ezagutza mota « disimulatu » bat izan lirateke. Folklorizazioak ez du beraz ohiduretz jabetzea trabatzen, subertsiboak izanik ere. Ihauterien erritualak ongi erakusten du dialektika hori.

Arriskua da hala ere praktiken bilakaera blokatzen duela : ohidura bat ondare ekarria den pundutik zaindu behar da eta zainduz aldatzeko aukerak murrizten zaizkio.

Azken hitz gisa erran nezake, kultura hiru molde hauetan bizi eta ekoizten dela gaurko jendarte gehienetan :

- ohidura moduan : gogoetatu gabe bizi da egunero,
- « el costumbre » moduan : biziki mestizoa da, atxikimendu eta indar handirekin proiektatzen eta transmititzen da,
- « kultura » moduan : ekonomikoki eta politikoki ekargarriak diren gertakari eta performantzien bidez ikusten da, eginmoldeak tokiko jendea dudan uzten badu ere.